



3. sektoreko
Euskadi

Hirugarren Sektor Sozialaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco del
Tercer Sector Social

JARDUNALDIA: GAZTEAK HIRUGARREN SEKTORE SOZIALEKO ERAKUNDEETAN SARTZEA: MOTIBAZIOAK, ITXAROPENAK, HARRERAK

Eguna eta lekua

Jardunaldia 2024ko martxoaren 6an, asteazkena, izango da, 11:00etatik 13:00etara, Europa Biltzar Jauregian (Florida Aretoa), Gasteiz Etorbidea 85, Vitoria-Gasteiz.

Aurkezpena

2020ko Euskadiko Hirugarren Sektor Sozialaren Liburu Zuriaren arabera, "sektoreko 3 erakundetik 1ek, gutxi gorabehera, 20 urteko edo gehiagoko ibilbidea du" (34). Liburu Zuriak gaineratzen duenez, "batez besteko antzintasuna 21 urte ingurukoa da, eta erakundeen erdiak dagoeneko 20 urteko antzintasuna gainditu du" (191). Datu horiek erakusten digute gure sektorea heldutasun-maila jakin batera iristen ari dela, eta, aldi berean, haren gizarte-iraunkortasunari buruzko hausnarketa-prozesuei ekin behar zaiela.

Hala ere, gure erakundeetan aktiborik garrantzitsuena horiek osatzen dituzten pertsonak direnez, gizarte-iraunkortasun hori, Liburu Zuriak berak adierazten duen bezala (5. erronka), gizarte-oinarria indartu eta handitu behar da, eta, horretarako, gizarte-arloko lotura- eta partaidetza-modu berriak txertatu behar dira. Baina beren belaunaldi-erreleboa ere pentsatu eta antolatu behar da, bai soldatapeko pertsonena, bai boluntarioena, belaunaldi berriak sartzen saiatuz, logika eta egiteko modu berriak, edota erakundeekin lotzeko eta konprometitzeko modu berriak ekarriko dituztenak.

Pertsona berriak, potentzialki gazteagoak, sartzeko prozesu horiek bestelako erronkak irekitzen dizkiete erakundeetara. Alde batetik, horiek integratzen eta zaintzen saiatu behar dute, parte hartzeko eta lotzeko modu eta estilo berriak txertatuz, eta, aldi berean, beren nortasuna, kultura eta antolamendu-balioak mantentzen eta transmititzen saiatu behar dute. Bestalde, talentuaren kudeaketan murgildu behar dute, pertsona berri horiengan egon daitezkeen profil espezifiko baliotsuak erakarriz eta atxikiz, eta, ordaindutako pertsonen kasuan, lan- eta/edo soldata-baldintza erakargarriagoak dituzten beste sektore batzuetara irteteko aukera saihesten saiatuz.

Tradizionalki, gai horiek guztiak erakundeen ikuspegitik jorratu izan dira, beren arazo partikularrak kontuan hartuta. Jardunaldi honetan, aldiz, **erakundeen belaunaldi-erreleboaren eta gizarte-jasangarritasunaren gaiari heldu nahi diogu, bertan sartzen diren gazteen ikuspegitik**, hirugarren sektore sozialarekin lotzera bultzatzen dituzten motibazioak, hirugarren sektore horri buruz duten irudia edota bertara hurbiltzeko dituzten modu desberdinak eta abar zehatzago ezagutzeko.

Jardunaldiaren helburuak eta egitura

Jardunaldi honetarako helburu hauek proposatzen ditugu:

1) Gazteen eta hirugarren sektore sozialaren artean hausnarketarako eta entzuteko espazio bat sortzea, bi aldeetatik erakundeetan parte-hartze sozialeko eta belaunaldi-erreboko prozesuak diseinatzean kontuan hartu beharreko elementu aipagarriak identifikatu ahal izateko.



2) EHSSn sartu diren edo sartu nahi duten belaunaldi berrien profil, pertzepzio eta jarretara lehen hurbilketa bat izatea.

3) Sektorari buruzko ikuspegi periferikotik, sektoreak gazteen artean proiektatzen duen irudia zirriborrazteko aukera emango duten inpresioak biltzea.

Helburu horiek lortzeko, hiru elkarrizketa-mahairen inguruan egituratu dugu jardunaldia, hainbat gai jorrazteko. Lehenengo bi mahaietan, erakundeetan boluntario edo profesional gisa sartutako gazteak izango dira protagonista, eta, alde batetik, sektorearekin bat egitera bultzatu dituzten motibazioak aztertuko ditugu, bai eta sektorera sartzeko izan dituzten bideak ere (1. mahaia); bestetik, gazteek sektorean sartu aurretik duten pertzepzioaz eta itxaropenez hitz egingo dugu, baita erakunde bateko kide direnean aurkitzen duten errealitateaz ere (2. mahaia).

Hirugarren mahaian, zenbait erakunde izango ditugu gazteak beren taldeetan sartzeko dakartzan erronkei eta aukerei buruz hausnartzeko, bai eta erakundeek belaunaldi berriez duten pertzepzioari buruz hausnartzeko ere, horiek funtsezkoak baitira haien gizarte-iraunkortasunean aurrera egiteko.

Azkenik, espazio ireki bat utziko dugu, bertaratzen direnek mahai ezberdinetan parte hartzen duten pertsonekin hitz egin edo haien gogoetak partekatu ahal izateko.

Jardunaldiaren egitaraua

11:00. Parte-hartzaileen harrera

11:05. Jardunaldiaren aurkezpena

11.10 Elkarrizketa-mahaiak

11:10. 1. mahaia. Gazteak EHSSra sartzeko motibazioak eta bideak.

11:40. 2. mahaia. EHSSn sartzen diren gazteek dituzten itxaropenak eta beren errealitatea.

12:10. 3. mahaia. Gazteei harrera egitea EHSSko erakundeetan: pertzepzioak, erronkak eta aukerak.

12.40. Publikoarekin hausnartzeko tarte irekia.

13:00. Jardunaldiaren itxiera